

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

ZARAUZKO UDALA

*2-2 Areako —OR Aldapeta— partzelen xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.*

2014ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

2014ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onspena ematea Udalak berak abiarazi zuen 2-2 areako -OR Aldapeta- partzelen xehetasun-azterketari. Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak idatzi zuen dokumentua.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirigintza arloko zinegotziak hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez, erabaki du:

*Lehenengoa.* Behin betiko onspena ematea 2-2 areako -OR Aldapeta- partzelen xehetasun-azterketari (2014ko apirileko dokumentua); Zarauzko Udalak abiarazi du xehetasun-azterketa hori.

*Bigarrena.* Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da; halaber, akordioari buruzko iragarkia lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitara emango da.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Nahi duenak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, edo zuzenean aurkatu bi hilabeteko epean Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarauz, 2014ko uztailaren 14a.—Alkatea. (6741)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

*Estudio de Detalle de las Parcelas del Área 2-2 —OR Aldapeta—. Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarauz, en sesión celebrada el día 20 de junio de 2014, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarauz, en sesión celebrada el día 9 de mayo de 2014, acordó otorgar la aprobación inicial al Estudio de Detalle de las parcelas del área 2-2 -OR Aldapeta- promovido por el propio Ayuntamiento. El documento fue redactado por el servicio municipal de Urbanismo y Medio Ambiente.

El expediente fue sometido a información pública. No se presentaron alegaciones.

A propuesta del concejal del área de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local por unanimidad, acuerda:

*Primero.* Aprobar definitivamente el estudio de detalle de las parcelas del área 2-2 -OR Aldapeta- (documento de abril de 2014) promovido por el Ayuntamiento de Zarauz.

*Segundo.* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa; igualmente se dará publicidad al acuerdo en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente, en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarauz, a 14 de julio de 2014.—El alcalde. (6741)